

# 1978: POLIZIEK PASTELAK LAPURTU ZITUZTEN URTEA

Joxe Iriarte, "Bikila"

**E**z da nire intentzioa, etengabe, zorigaitzoko Egoerak gogoratzea. Askoz ere atseginagoa zait egoera haien alde onuragarrienak eta laudagarrienak (nor bere erara, jakina) aipatzea. Esate baterako, nahiago dut errepresioaz baino, garai haietako bizi-poz borrokalariak edo mundua aldatzeko genuen grinaz mintzatzea. Nahiago dut, Errenteria-Orereta herri

jazartuaz baino, Errenteria-Oreretan hain bizirik zegoen asanblada zaletasunaz eta herri langile giroaz gogoeta egitea. Eta nahiago dut, mendekuaz baino, bizikidetzaz aritzea; baldin eta bizikidetzaz oinarritzen bada justizia sozialean, lege zuzentasunean eta kultura desberdinen arteko berdintasunean. Bestela ez dago bizikidetzarik, esplotazioa eta zapalkuntza baizik.

Horregatik poztu naiz Errenteriako udalak bizikidetza eraikitzearen alde emandako pauso sendoagatik. Bai ETak hildako zinegotziei eta beren sendiei zor zitzaion aitortza egiteagatik; eta baita ere, 1977ko Amnistiaren Aldeko bigarren astean, poliziaren jazarpen errepresioaren biktimei egindakoagatik. "Lege eder bat jarri, bizi gaitezen garbi, hori desio nuke nik isuri gabe odolik", zioen gure Xenpelarrek. Zoritxarrez, odola isurtzeari amaiera emateak ez du ziurtatzen lege ederrik, batez ere Espainiako Erresuman. Gaur egun Katalunian gertatzen dena lekuko.

Eta gure iraganarekin lotura duenez (George Orwellekin bat eginez: memoria galtzen duen herriak jai du), berrogei urte ondoren gogora ekarri ditut 1978ko udan gure herrian gertatutakoak, Iruñean eta Pasaian sanferminetan zeudela, .

## HERIOTZA IRUÑEAN

**Uztailak 8.** Iruñeko sanferminetan German Rodriguez hil du poliziak.

**Uztailak 9.** *El País* egunkariak dakarren argazkian begiak itxita ditu Germanek eta aurpegiak nekearen ondorengo atsedena islatzen du, baina bekokiaren erdian duen zulo beltzak errepresioaren izua adierazten du. Arratsalde istiluak izan dira herrian.

**Uztailak 10.** Eguna argitzerako izugarritzko mugimendua antzeman daiteke kalean. Lantegiko bidean, bezperan gertatutakoa da hizpide nagusia, eta eskuz idatzitako kartelak non-nahi: *hamabietan, asanblada Herriko Enparantzan*.

Aldez aurretik lantegi bakoitzeko asanbladetan erabakiko da greba orokorra egiten den ala ez.

lazko greba orokorretan ez bezala, oraingoan ez da izan dei bateratu eta bakarra. Iruñetik etorri den elkartasun eskaerari erantzuten ari dira alderdi batzuk, baina garrantzia duena jendearen erantzun bat-batekoa bezain solidarioa da.

Ohi bezala lantegi batzuetan, di-da batean egin dute asanblada eta berehala atera dira. Beste batzuk, berriz, eztabaidan luzatu dira, zer egin erabaki arte. Petralenek, ordea, duda-mudan jarraitu dute azken uneraino, beste



German Rodriguez.  
Iruñea. 1978-07-08.



Joseba Barandiaran.  
Donostia. 1978-07-11.

tokietan gertatuko denaren zain. Eguerdirako, ordea, greba orokorra eta borroka nahia zeharo nagusitu dira giroan.

Ohi denez, Iruñean gertatukoari buruzko argibideekin eta lantegietan hartutako erabakien azalpenekin hasi da asanblada.

Hitza hartu duten gehienek gobernua jo dute erruduntzat, preso berrien aldeko askatasunaren deiarri, berriro, errepresio basatiaz erantzun diolako. Alabaina, politikoki mingarriena, Nafarroaren egoera da. Duela urtebete besterik ez, Nafarroa Euskadi zela aldarrikatzen zuen PSOEk jaka aldatu du. PNVk hitzez ohiko jarrera mantentzen du, baina gero eta garbiago dago ez duela ezer egingo egoera honen aurka, eta sortu berria den Euskal Kontseilu Orokorraren bideari eutsiz, Hego Euskadiren banaketa onartu egingo duela, alde edo moldez.

Arratsaldeko asanbladan Iruñetik etorritako LKIk lagun batek emozioz beteriko azalpenak eman dizkigu. Hari entzunez begiak zeharo lausotu zaizkit.

Hurrengo egunerako, *greba orokorra!* deialdiarekin bukatu dugu asanblada eta manifestazioa.

## GREBA OROKORRA

**Uztailak 11.** Greba orokorra eta osoa da. Langileak etxean geratu dira, komertzioak itxita daude, jendea kalean dago.


Telebistan eta, salbuespenak salbuespen, prentsan agerturiko gezur zitalek amorratu egin gaituzte. Prentsari buruz ari garela, *Egin* egunkariko



Biteri kalea. Errenteria.

zuzendaritzaren partaide batek hitza eskatu du, papera amaitu egin zaiela eta Papelera Españolatik hartzeko baimena eskatuz.

lazgreba aktiboaren edo eraginkorraren inguruan izan genuen eztabaida bera piztu da: dena gerarazi ala herria gure kaxara antolatu? Portugalgo *La Republica* aldizkarian gertaturikoa azaldu da. Aldizkari honetan, langileek zuzendaritzari ezarritako araudien baitan



argitaratzen zuten, batez ere, berriek borroka jakin batekin zerikusirik zutenean. Ideia horretan oinarriturik, *Eginekoei* papera hartzeko baimen baldintzatuaren alde hitz egin dute, argi baitut zintzo jokatu dutela grebaren aurrean. Eta batez ere, Erreterian gertaturikoaz.

Kontrako iritziak irabazi du. Hots, oraingoan, greba aktiboa baino paralizazioa nahiago da.

Gauzak honela dira. Asanbladak organo biziak dira. Eguneko giroaren baitan mugitzen direnez, demokrazia burgesaren instituzioetan ez bezala, erabakiak gehiengo mugikorraren arabera gauzatzen dira.

Ohikotasuna apurtzeko, manifestazioak Beraun aldera jo du. Auzo honetan taberna batzuk irekita daudenez, itxiz joan gara. Balkoietan dauden emakumeak txaloka hasi zaizkigu.

-Ongi, ongi. Lan egiten ez badute, ez daitezela mozkortu!

Erdialdera jaisten ari ginela, lehegailu baten eztanda baillitza heldu zaigu albistea: Donostiako Aldapeta kalean izandako istiluetan poliziak Joseba Barandiaran astigartar gaztea hil du. A zer-nolako amorrazioa! Madarikazioak ezpainetan, ukabilak estutuz, manifestazioa norabidez aldatu da eta autopistarantz jo dugu.

Lipar batean, Beraun ondotik igarotzen den autopista barrikadaz bete dugu, eta bertan zer gertatzen den ikustera agertu diren guardia zibilek a zer harri-jasa jaso duten!

-Hormara! Hormara! *Martin Villa, Martin, a todo cerdo le llega su San Martin!* -oihuka hasi zaie jendea.

Ilunabarrean Beraungo auzokideak beraien kasara ibili dira sardinzarren aurka. Gertakizun hau pozgarria da, orain arte erdigunetik igo izan baikara auzo horren epeltasuna zertxobait berotzeko. Oraingoan, berriz, euren borondatez hasi dira borrokan, eta errepresio itzela jasan dute.

Gauaren babesean, *txapelokerrak* bazterrak izorratzen ibili dira. Atarietako erantzungailuak hondatuz,



komertzio batzuetako kristalak hautsiz, lapurretak eginez eta abar.

**Uztailak 12.** Arratsaldeko asanbladan Barne Ministroa den Martin Villa Euskal Kontseilu Orokorraren barne-saileko burua den Txiki Benegasekin biltzera Donostiara etorri dela jakin dugu.

Martin Villak erantzukizunak argitzeko ikerketa batzorde bat sortuko duela adierazi du, eta Benegas horrekin lasaitu egin da. Hitz zuri horiek egiazkoak balira bezala ontzat hartu dituzte alderdi politiko gehienek, eta ondoren greba amaitzeko deia egin dute. Honek, noski, amorrua sortu du asanbladaren baitan.

Hala ere, dugun arazo korapilatsuena, hurrengo egunean zer egin behar dugun erabakitzea da. Greban segi, ala amorrua irentsi eta amore eman. Bi iritzi desberdin plazaratu dira: lehenengoa, aurrera jarraitzeko baldintza onik ikusten ez duenez, lanera itzultzearen aldekoa da. Gehiengoaren ustez, ordea, bai Martin Villari eta bai Txiki Benegasi erakutsi behar diegu ezin gaituztela nolana ere baztertu, eta erantzukizunak argitu arte greban segitu behar dugu.

Eztabaida pil-pilean dagoela, Beraungo auzokide batzuek hitza hartu dute beraien auzoan gertatzen ari dena salatuz. Nonbait, txapelokerrak makil dantzan ari dira eta egurra ez ezik tiroak ere banatzen dituzte.

Berehala bukatu da eztabaida. Bozgorailua harturik, "hara Martin Villaren, erantzuna: hitz zuriak, baina egur gordina. Denok Beraunera!" oihukatu dut.

Beraunera iritsi garenean, balaz zauritutako bi, eta kolpatuko asko daudela jakin dugu. Autopista irekitzeko asmoz, auzo guztia airean jarri dute. Gure erantzuna beste horrenbestekoa izan da. Autopistaren inguruetan izugarritzko gatazka piztu da, gaueraino iraun duena.

**Uztailak 13,** osteguna. HBk, LKIk eta PCE(m-l)k izan ezik, alderdi politiko guztiek grebaren amaiera eskatu dutenez, Errenteria isolatuta geratu da.

Hala ere, goizean egin den eskualdeko ordezkarien asanbladan gehiengo greba jarraitzearen alde agertu da. 2.000 lagun inguru agertu gara herriko asanbladara. Bertan gaudenon artean giroa ez da oso gozoa, haserreak eta etsipenak burua jaten baitigu.



## POLIZIAREN ERASO BASATIA

Asanblada bukatu ondoren, ohi bezala, manifestazioa egin dugu inongo arazorik gabe. Une horretan guardia zibilaren helikoptero bat agertu zaigu herrian bueltaka. Odol bila dabilen putrea dirudi!

Halako batean, *antidisturbioen* autobusek eta furgonetek osatzen duten konboi luze baten burua ikusi dugu Kaputxinoetako tunelaren irteeran. Bat, bi, hiru, sei, zortzi, hamabi, hogeitau autobus edo furgoneta. Denak lerroz lerro.

Lerroetan saillaturik jarri dira guri begira, eta bat-batean Atilaren zalduneriaren antzera eraso digute. Zorionez, bakan batzuk izan ezik, gehienak ospa eginak ziren ordurako, eta ezin izan dute inor egurtu.

Kalearen jaun eta jabe, oralde amorratuak bezala, edozein gauzari kosk egiteko grina zoroan, basakeria itsu-itsuan erori dira: komertzioen erakusleihoei, ezkaratzei, atariei, autoen kristalei, leihoen atzean mugitzen ziren gortinei eta abarri, denei astinaldi ederra eman diete.

Ikusi dituzten ikurrinak txiki-txiki egin dituzte, baita udaletxekoa ere, eta azkenean arpilatzeari ekin diote.

Jabego pribatuaren zaintzaile amorratuak omen diren horiek txikitzaileek eta lapurrek bezala jokatu

dute herritar arrunten jabegoekiko. Legalitatea betearazteko omen daudenek jada legala den ikurrina oinazpiratu dute. Bakea jartzeko omen direnak istilugile amorratuaren antzo agertu zaizkigu. Horien zaintzapean, litekeena ote demokrazia?

Argazkilaria trebe batek **Teo gozotegian lapurretan harrapatu ditu bi polizia.**

*Deia* egunkariak argitaratu ditu bi poliziak ebasten ikusten diren argazkiak. Berriro ere, Errenteria albistegai bihurtu da, eta aldizkarietako zein telebistako berriemailez bete zaigu herria.

Orain arte, isil-isilik egon den udal gestora<sup>1</sup>, bat-batean berpiztu egin da, eta herritarren defendatzaile sutsuena bailitzan agertu nahi du bere burua. Gobernadore zibilarekin harremanetan jarri da, eta honi, gauzak bere onera itzul daitezzen, kaltetuei nolabaiteko indemnitazioa eskaini behar zaiela adierazi dio.

Gestio honen berri emateko asmoz, kaltetu guztiak bilera batera deitu ditu udalak. Bere presentzia ziurtatu arren, gobernadorea ez da agertu.


Kaltetuetako askok dirua ez ezik erantzukizun politikoa ere eskatu dute, hala nola gobernu zentralari errepresioaz erantzuteagatik; Euskal Kontseilu Nagusiari delako zentralismoaren aurrean kikildu egin delako, eta batez ere, gure aurka oso maltzurki jokatu delako greba bertan behera uzterakoan; eta udal gestorari, behar zenean ez delako herria defendatzeko gauza izan, eta batez ere asanbladaren aurka azpijokoan ari delako.

## BI IKERKETA BATZORDE

Arratsaldeko asanbladan bi erabaki hartu dira: manifestazio nazionala deitzea larunbaterako, eta ikerketa batzorde herritarra sortzea, zeina Iruñean eta Astigarragan sortu berri direnekin koordinatuko den.

Udal gestorak bere aldetik deia luzatu die alderdi politiko guztiei, denen artean beste ikerketa batzorde

<sup>1</sup> Udal gestora, PSOE, PNV, ORT, PT, EMK, eta OIC partiduen artean osatu zuten. HASI, LAIA, EIA, eta LKIk, berriz, uko egin zioten gestoran parte-hartzeari.



Teo pastel denda. Gamon zumardia.

bat osa dezaten eta, bidenabar, aurre egin diezaioten herrian omen dagoen anabasari.

Desadostasuna argia da. Orain arte, udalak esparru bat bete ohi du eta herri asanbladak bestea. Eta kalea, asanbladarena da. Honela jarraituz geroz, udalaren eta asanbladaren arteko auzia gogortzen eta pipertzen joango da.

Egunkari guztiek, *Eginek* izan ezik, udalaren erabakien berri ematen dute bakar-bakarrik, herriko asanbladarenak isilduz. Egunkarietakoak albiste bila gure asanbladara etortzen ziren garaiak joan zaizkigu, auskalo noiz arte. Eta, gaur egun, telebistan zein egunkarietan agertzen ez bazara, jai duzu. Ez zara existitzen. Hori da demokrazia mediatikoak ekarri duen lege berria.

Alabaina, oraindik, asanbladak bizi-bizirik dirauen heinean badugu zer esanik, eta udalari aurre egiteko adina indar ere badugu.

## MANIFESTAZIO JENDETSUA

**Uztailak 14.** Garai batean bezala, iada, bost eguneko greba orokorra bete dugu herrian. 4.000 pertsona elkartu gara eta ikerketa batzordearen lehenengo informea azaldu da.

**Uztailak 15.** Arratsaldeko manifestazioa bi bloketan bereizi da. Lehenengoan asanbladaren inguruan pilotutakoak izan dira, hamar mila lagun inguru, *Polizia hiltzaile* idatzirik duen pankarta baten atzetik. Bigarrenean, hiru mila inguru lagun inguru, *Ordena publikoaren transferentzia Euskal Kontseilu Nagusiari* eskatzen duen pankartaren atzetik.

## HAUSNARREAN

1977ko ekainaren hasiera haietan esan ohi genuen: “gaur hasten dugun greba auskalo noiz eta nola bukatuko dugun, errepresio basatiak dena hankaz gora jartzen baitu”.

Hauteskundeak izan ondoren, ordea, egoera aldatzen joan da. “Salbuespenak salbuespen, zirikatzen ez bazaio, bederen, poliziak ez du erasotzen”. Hori da sistemaren mezua eta leloa.

Hala ere, Iruñeko zezen-plazan gertaturikoak zalantzan jarri du uste hori, eta baieztatu Euskadin erreforma oraindik ez dela errotu. Izan ere, frustrazioak erro handiak ditu gure herrian.

Izan ere, bada oraindik ere indartsu dirauen gatazka soziala, langabeziaren eraginez hedatzen ari den ostia txarra, eta Nafarroan gertatzen denarekiko dagoen kezka eta ardura.

Halaber, ikusi dugu euskal burujabetzaren aldetik ez okel ez arrain diren instituzio berri horiek, zein otzanak diren zentralismoaren aurrean, baina nola jartzen diren gatazkaren erdi-erdian, herriaren barrenak nahastuz eta batasuna zapuztuz.

Dena dela, gure aldetik ere, hutsak eta ahuleziak nabariak izan dira. Asanbladek galdu egin dute garai bateko indarra, aldizkakoak eta eskasagoak bihurtzeaz gain, giroaren aldetik oso aldrebestuak daude, eta batzuetan ezkerkeriak irabazten du.



Manifestación del sábado 15.

...

Madalenak, gure jaiak. Ospatu ala ez ospatu. Hurrengo egunetan a ze nolako zalantzak. Hasieran, Pasaian gertatutakoaren beldur zen jendea. Baina, azkenean, beldur guztien gaineretik eta trumoi guztien azpitik, festa atera da garaile.

Barruak edariaz blai eginda, soinak izerdiaz busti-bustita eginda, baina eztarriak lehor-lehor, *¡Que se vayan, se vayan, se vayan!* ezbairik gabe, herri honetako *hit-parade* partikularrean garaile atera den kantua.

Kalean gora, kalean behera, herria jai giroan blaitzen ari den bitartean, udaleko gestoraren kide batzuk, pastelak eta puruak hartuz, isilka-misilka, guardia zibilen kuartelillora abiatu dira, bertan dauden familiei borondate oneko keinu bat luzatuz.

Sekretu ezkutuenak ere azkenean jakin egiten dira, eta *pasteltxoena* ez da izan ondo gordetzen diren horietakoa, ez baitu denbora asko iraun isilpean. Herritar askok iraintzat hartu du keinu hori. Agian beste batzuek ez. Iritzi askotarikoa baita gure herria.

Handik egun batzuetara, kuartelilloaren aferan inplikaturikoen karikaturak azaldu dira paskin batean: "Grisek pastelak lapurtu zituzten. Berdeek, ordea, gestoraren eskutik hartu dituzte".

Horrela amaitu zen poliziek pastelak lapurtu zituzten urtearen afera.

**ERRENDERIA ERREPRESIOAREN AURKA**  
 Informa la Comisión Investigadora de la Asamblea 1978ko Uztaila

Tres las asambleas de las fábricas, la Asamblea de Pueblo de Rentería ha sido el centro de debate y decisión en el desarrollo de la huelga general. El jueves 15 de julio, cuando la huelga y la ocupación de la calle permanecían aún así, a pesar del llamamiento a la vuelta al trabajo, la policía ocupó y ocupó el pueblo de una manera descomunal.

No fue un hecho aislado ni casual. Hechos similares habían ocurrido dos días antes en Bermeo, y la prensa y los medios de comunicación no lo arrojaron tanto. Y lo que es más grave, la policía había disparado fuego real contra los manifestantes indefensos, causando dos heridos de bala que podrán haber aumentado la lista de damnificados por la policía.

Tras la vuelta al trabajo, para la asamblea quedó claro que esta "normalidad" no era deseable y que no podemos permitir la investigación exclusivamente en la enumeración de datos materiales y la recuperación de los materiales sino la recuperación integral. Y así recordamos siempre: lo estamos haciendo no acabemos con los sucesos repetidos.

Por eso, la investigación es también necesariamente movimiento y profundización en los objetivos de la lucha y esta a través de la única forma que nos garantiza el protagonismo directo: la Asamblea y los instrumentos de los que se valga en cada momento. Uno de ellos es la comisión de investigación que surgió de ella, por eso, esta comisión informa y convoca nuevamente a todo el pueblo para estudiar, debatir y decidir en Asamblea, para el próximo jueves 27, a las 7,30 de la tarde, cuál es el camino por el que debemos caminar hoy la lucha.

**ASAMBLEA DE PUEBLO. JUEVES 27, A LAS 7'30 DE LA TARDE**

Ikerketa batzordea.